



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko urriaren 9a

100. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, enpresa edo lanbide jarduerak abian jartzeko xedearekin administrazioa errazteko neurriei buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da landa eremuko larrialdietako zerbitzuak berrantola ditzan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Altsasun eta Sakanan langabeziaren aurka borrokatzeko eta ekonomia suspertzeko plan bat onets eta betearaz dezan. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ebroko Konfederazio Hidrografikoari eska diezaion ez onartzeko minizentral hidroelektriko bat eraikitzea Ega ibaian. Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztu du (6. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere egiten baititu Europako Kultur Hiriburua ekintza europarraren bidez Europako herritartasunaren eduki osoetarantz jotzeko helburuak. Eledunen Batzarrak onetsia (7. or.).

—Adierazpen instituzionala, Adineko Pertsonen Nazioarteko Eguna dela eta. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, kirol instalazioetako gabeziei buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (9. or.).

—Galdera, zahar-etxeetako tarifei buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (9. or.).

—Galdera, kapital aldakorreko inbertsio sozietateen zergen igoerari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (10. or.).

- Galdera, Nafarroan musikak duen egoerari buruzko azterlanari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (11. or.).
- Galdera, jakiteko ea Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak noiz zuzenduko dituen Aralar-ko San Miguel santutegiko sarbideko seinaleak, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (12. or.).
- Galdera, Lizarrako San Migueleko nahiz San Pedro de la Rúako eta Iratxeko monasterioko portale erro-manikoen egoerari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (13. or.).
- Galdera, 2009ko apirilaren 1etik gaur arte onetsitako enplegu-erregulazioko espedienteei buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (14. or.).
- Galdera, 360/2000 Foru Dekretuaren bidez ezarritako laguntzen deialdiari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (15. or.).
- Galdera, lehiakortasuna hobetzeko dirulaguntzei buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (16. or.).
- Galdera, jakiteko zer kontusailetan sartu diren Nafarroako IV. Enplegu Planean aurreikusitako zenbatekoak, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (17. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak noiz zuzenduko dituen NA-1700 eta NA-1300 errepideetako errotuluak, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (17. or.).
- Galdera, Nafarroako Mendekotasun Agentziak egoitza publikoei eta itunpekoiei aplikatzen dizkien tarifei buruzkoa, Ana Figueras Castellano andreak egina (18. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Klima aldatetari aurre egiteko jarduerak aztertu eta horiei buruzko proposamenak egiteko lan-taldearen txostena. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordeak onetsia (19. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, enpresa edo lanbide jarduerak abian jartzeko xedearekin administrazioa errazteko neurriei buruzkoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 5ean egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1.- Enpresa edo lanbide jarduerak abian jartzeko xedearekin administrazioa errazteko neurriei buruzko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2009ko urriaren 26ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proiektua

2009ko irailaren 11ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da landa eremuko larrialdietako zerbitzuak berrantola ditzan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita landa eremuko larrialdietako zerbitzuak berrantola ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da landa eremuko larrialdietako zerbitzuak berrantola ditzan.

Zioen azalpena

Landa eremuko larrialdietako zerbitzuen helburua da arreta jarraitua emateko berariazko langileak egotea hiriguneak ez diren eskualdeetan.

Zerbitzu horien antolamendu berria abian jarri zen 2008ko apirilean, sindikatu guztiekin adostuta. Antolamendu berriaren ondorioz, 122 mediku lanpostu eta 126 erizain lanpostu betetzeko enplegu eskaintza publikoa egin zen.

Landa eremuko larrialdietako zerbitzuen antolamendu berria arazoak sortzen ari da. Dirudie-

nez, zenbait eremutan langile kopurua ez da nahikoa; aldiz, beste batzuei atxikitako giza baliabideak ez dira behar bezala aprobetxatzen.

Horrek agerian uzten du landa eremuko larrialdietako zerbitzuen antolamendua ez dela behar bezala egokitzen osasun-eskualde bakoitzeko egiazko beharrezanetara, eta, halaber, kontuan hartu beharko liratekeela osasun eskualde oinarriko bakoitzaren berezitasunak. Berezik, arreta jarri beharko litzateke ondoko irizpideetan:

– Norbanakoaren osasun txartel kopurua, gutxira, eta 65 urtetik gorakoena.

– 15:00etatik 22:00etara eta 22:00etatik 08:00etara artatutako larrialdi kopurua.

– Ordu-tegi horietan artatzen diren larrialdi motak.

– Profesional titularrak (medikuak eta erizainak) eta larrialdi zerbitzuei atxikitako langileak.

– Barreiatze geografikoari buruzko adierazleak.

– Osasun zerbitzuen arteko distantziak eta azpiegiturak (errepideak).

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du honakoak egin ditzan:

1. Landa eremuko larrialdietako zerbitzuak berrantolatzeko proposamena igor dezan Nafarroako Parlamentura, bertan onets dadin.

2. Berrantolamendua sindikatuen adostasunarekin egin dadin, sei hilabete iragan baino lehen.

Iruñean, 2009ko irailaren 28an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Altsasun eta Sakanan langabeziaren aurka borrokatzeko eta ekonomia suspertzeko plan bat onets eta betearaz dezan.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Altsasun eta Sakanan langabeziaren aurka borrokatzeko eta ekonomia suspertzeko plan bat onets eta betearaz dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, dagokion batzordean eztabaidatzeko:

Nafarroa, Estatu osoa bezala, krisialdi ekonomiko sakon batean murgilduta dago, eta horren ondorio sozial larriena da lanpostu asko suntsitzea eta langabezia areagotzea.

Gaur egun, Nafarroan, krisiaren biktima nagusiak enplegua galdu duten milaka langileak dira, bai eta beren jarduerari eusterik izan ez duten milaka autonomo eta enpresaburu txikiak. '

Populazio Aktiboaren Inkestak emandako datuen arabera, Nafarroan langabezia handitu egin da eta 2008ko bigarren hiruhilekoan % 5,62koa izate-tik 2009ko bigarren hiruhilekoan % 12,23koa izatera iragan da. Izan ere, urtebetean langabetu kopuruak 21.000 pertsonatan egin du gora –2008ko ekainean 17.400 ziren, eta 2009ko ekainean, berriz, 38.300–, hau da, % 120 egin du gora. Eta aldi horretan okupatuaren kopurua 291.300etik 275.100era murriztu da.

Egoera hori ondorio larriak izaten ari da Nafarroa osoa, baina bereziki gogorra izaten ari da industria alorreko enplegu asko dagoen eskualdeetan, esate baterako, Altsasun eta Sakanan.

Alderatzen baditugu Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eskualde horretako langabeziari buruz emandako datuak Nafarroako gainerako eskualde-etako datuekin, agerian geratzen da eskualde horretan gertatzen ari den lanpostu suntsitzearen larritasuna.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren arabera, Sakanan 586 pertsona zeuden langabetuen zerrendan erregistraturik 2008ko urtarrilean; 2009ko abuztuan, kopuru hori 1.128ra igo zen. Hau da, urtebete eta zortzi hilabetetan, erregistraturiko langabeziak % 92,5 egin du gora.

Nafarroako gainerako eskualdeetan, denbora tarte berean, erregistratutako langabeziak ondoko igoera izan zuten, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren arabera: Iruñean, % 56,2; Lizarran, % 43; Tuteran, % 73,6; Tafallan, % 53,4; Agoitzen, % 25,2; Lodosan, % 57,8; eta, Donezteben, % 31,3. Hau da, Altsasun eta Sakanan langabezia asko ari da igozten krisialdi honetan. Horren arrazoia da, zalantzarik gabe, industriaren sektoreak eskualde horretako egitura ekonomikoan daukan pisua.

Azken aldiaren produkzioa eta enplegua deslokalizatu edo enplegu-erregulazioko espedienteak aurkeztu dituzten enpresen zerrenda oso luzea da.

Hala, deslokalizazioa dela-eta itxi dituzten enpresen artean daude Recínsa –Durangora, 90 lanpostu–, Dinescon –Barasoainera, 90 lanpostu– eta Aceros Ormazabal –Araia, 18 lanpostu–.

Eta deslokalizazioari gehitu behar zaio enplegu-erregulazioko espedienteak aurkeztu dituzten enpresen zerrenda, horrek enplegurentzat dakarrek segurtasun faltarekin. Gainera, enpresa horietan behin-behineko langileak kanporatu dituzte.

Hala, enplegu-erregulazioko espedientea aurkeztu dute Arfe (140 langile), Hisphording (90 langile), Sunsundegui (245 langile) edo Eguzquiza (120 langile) enpresek, bai eta bakoitzak 5 eta 20 langile artean dituzten beste hamar enpresa osagarriek ere.

Eta horri gehitu behar zaio industriarako lurzoruaren falta; izan ere, hori dela eta, enpresen proiektu berriak abian jartzeko aukerak sortzen direnean, horiek Sakanatik kanpo ezartzen dira.

Horrekin lotuta, ulertezina da nolako moteltasunarekin izapidetu eta egiten ari den Zangituko industrialdea (900.000 metro koadro Altsasu eta Urdiainen artean); proiektu garrantzitsu honek hamar urtetik gora daramatza tratatuta Nafarroako Gobernuaren bulegoetan.

Laburbilduz, eskualde honek egoera sozial eta lan egoera bereziki larria bizi du, krisialdi ekonomikoak eraginda, eta, hori dela eta, beharrezkoa da botere publikoek erantzun berezia ematea. Alegia, erantzun berezia, zeinak eskatzen baitu esku-hartze berezia eta berariazkoa jarduera eta enplegua berreskuratzeke.

Hori dela-eta, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkar-tekak ondoko erabaki-proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Altsasun eta Sakanan langabeziaren aurka borrokatzeke eta ekonomia suspertzeko plan bat onets eta betearaz dezan, eskualde horretako toki entitate, sindikatu eta eragile sozia- lekin lankidetzan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du plan hori finantzatzeko kontu- sail berezi bat sar dezan Nafarroako 2010erako aurrekontu orokorretan.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lehenbailehen egin dezan Zangituko eskualdeko industrialdea.

Iruñean, 2009ko irailaren 28an

Eleduna: Ion Erro Armendáriz

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ebroko Konfederazio Hidrografikoari eska diezaion ez onartzeko minizentral hidroelektriko bat eraikitzea Ega ibaian.

ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzar- rari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, bes- teak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Ebroko Konfederazio Hidrografikoari eska diezaion ez onartze- ko minizentral hidroelektriko bat eraikitzea Ega ibaian.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziale- an argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko Ion Erro

Armendáriz jaunak, Legebiltzarreko Erregelamen- duan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aur- keztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka- tzeke:

Zioen azalpena

Ega Ibaia Arrantzaleen Elkar-tekak eta Erribera- ko Ecologistas en Acción taldeak eginiko alegazio- ei jarraikiz, Landa Garapeneke eta Ingurumeneko Departamentuak txosten bat egin du, zeinak ez baitu egokitzen jotzen Ega ibaian, San Adriá- nen parean, minizentral hidroelektriko bat egitea, La Presako jolas-gunearen ondoan.

Proiektua Azagrako eremu ureztagarriko urez- tatze sindikatuak sustatu du, eta herritar askok uste dute jarduketa horrek hainbat inkoherentzia dituela eta arazo asko ekarriko dituela.

Minizentralak ordezkatzeko du gaur egungo ura hartzeko sistema eta hogeitaz biderkatuko da sindikatu horri emandako ura ibaiaren zati horre- tan; izan ere, emakida 0,8 metro kubikokoa segun- doko izatetik 17,7koa izatera pasako da, eta ziurre- nik horrek arazoak ekarriko ditu inguruko landare eta animalientzat.

Departamentuak hain txosten negatiboa eta erabatekoa egin duela ikusirik, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Ebroko Konfederazio Hidrogra-

fikoari eska diezaion ez onartzeko minizentral hidroelektriko bat eraikitzea Ega ibaian, San Adriáñen.

Iruñean, 2009ko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere egiten baititu Europako Kultur Hiriburua ekintza europarraren bidez Europako herritartasunaren eduki osoetarantz jotzeko helburuak.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2009ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere egiten ditu Europako Parlamentuak eta Kontseiluak onetsitako Europako Kultur Hiriburua ekintza europarraren bidez Europako herritartasunaren eduki osoetarantz jotzeko helburuak, zeinak sendotzen baitituzte batzen gaituzten balioak, historian zehar batu gaituenak eta gaur egun eraikitzen ari garenak, etorkizunari begira.

2. Nafarroako Parlamentua bat dator kultura sustatzeko helburuarekin, bai oroimenari, nortasunari eta garapen-ahalmenari dagozkion alderdietan, bai berrikuntza, sormena eta, bereziki, sorkuntza artistikoa, bere adierazpide guztietan, bultzatzeko beharrari dagokionez, gure erkidegoaren nortasun-ezaugarriak baitira.

3. Nafarroako Parlamentuak bere poza adierazten du hiriburutzaren ekintza Foru Komunitate osora zabaltzeagatik, eta esker ona adierazten dio Iruñeari, erronka hori lurralde osora zabaltzeko ekimena izan duelako.

4. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du, bere eskumenen esparruan, hautagaitzak bultzatzen duen edozein ekintza sustatu eta babesteko, eskura dituen baliabide guztiak erabili ta.

5. Azkenik, Nafarroako Parlamentuak gainerako erakunde, entitate eta taldeak, publikoak nahiz pribatuak, eta bai eta norbanakoak ere, premia tzen ditu adierazpen instituzional honen aldeko atxikipena ager dezaten eta, bakoitzak bere jarduera-esparrutik, bultza ditzaten hautagaitzarako beharrezkoak diren helburuak eta prestakizunak.”

Iruñean, 2009ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Adierazpen instituzionala, Adineko Pertsonen Nazioarteko Eguna dela eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2009ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak berresten du adineko pertsonekin eta haien ongizatearekin eta duintasunarekin duen konpromisoa, zeina adierazi baitzen legebiltzar honek 2007ko abenduan aho batez onetsitako Nafarroako Zaharren Eskubideen eta Betebeharren Gutunean.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Zaharren Eskubideen eta Betebeharren Gutuna zabaltzeko neurri guztiak sustatuko ditu, eta, horrekin batera, bultzatuko du zahartzaroari eta adineko pertsoneri buruzko estereotipo negatiboak aldatzea eta adineko pertsonen irudi erreal eta positiboa zabalitzea.

3. Era berean, Nafarroako Parlamentuak foru erkidegoko administrazio guztiak premiatzen ditu

adineko pertsonen osatzen duten giza kapitala aitor dezaten, pertsona horiek gizarte eragile aktibotzat har ditzatela eta duintasunez zahartzea ahalbidetzen duten neurri sozial eta ekonomikoak har ditzaten, hala nola tratu txarren egoeren aurka egitea, adinagatiko edo kultura desberdinekoa izateagatiko bazterkeria oro ekiditea eta neurri zehatzak hartzea adineko pertsona behartsuenen egoera material eta ekonomikoa hobetze aldera.

4. Nafarroako Parlamentuaren ustez, garrantzitsua da Espainiako Gobernua prestatzen ari den Tratu berdintasunari buruzko Legean adinagatiko bazterkeria eragozteari buruzko zenbait alderdi kontuan hartzea”.

Iruñean, 2009ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, kirol instalazioetako gabeziei buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, kirol instalazioetako gabeziei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariak ahoz erantzun dezan Legebiltzarren Osoko Bilkuran:

Kirol instalazioetako gabeziei buruzko galdera.

Zer neurri hartuko ditu zure departamentuak gabeziak dituzten kirol instalazioen kalitatea hobetze aldera?

Iruñean, 2009ko irailaren 25ean

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, zahar-etxeetako tarifei buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, zahar-etxeetako tarifei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2009ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariak ahoz erantzun dezan Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Batzordean:

Nafarroako Mendekotasunaren Agentziaren menpeko zahar-etxeen tarifen igoerari buruzko galdera.

- Zergatik igo dira zahar-etxeetako tarifak % 10 baino gehiago?
- Zergatik igo dira irailean, atzeraeraginezko ondorioekin?

Iruñean, 2009ko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, kapital aldakorreko inbertsio sozietateen zergen igoerari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, kapital aldakorreko inbertsio sozietateen zergen igoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Zein da Nafarroako Gobernuaren iritzia kapital aldakorreko inbertsio sozietateen zergen igoera dela eta?

Iruñean, 2009ko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Nafarroan musikak duen egoerari buruzko azterlanari buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroan musikak duen egoerari buruzko azterlanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Zioen azalpena

Nafarroako Parlamentuak, 2009ko otsailaren 12an eginiko Osoko Bilkuran, aho batez onetsi

zuen mozio bat, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baitzen Nafarroan musikak duen egoerari buruzko azterlan bat egin zezan, horren ondorioz prestakuntzari, interpretazioari, zabalkundeari eta sorkuntzari buruzko plan bat egiteko.

Mozioaren 4. puntuak honela zion, hitzez hitz:

“Aipatu azterlan-txostena Nafarroako Parlamentuko Kultura eta Turismo Batzordean aurkeztuko da, 2009ko irailaren 30a baino lehen, 2010eko aurrekontuetan sartze aldera plan horretan jasotako ekintzak aurrera eraman ahal izateko beharrezkoak diren kontusailak.”

Parlamentuak ezarritako epea amaitu denez eta eskatutako azterlana Parlamentura igorri izanaren berririk ez dugunez, hauxe jakin nahiko nuke:

Ahozko galderaren testua

Noiz esleitu zen azterlana eta zer baldintzatan? Zergatik ez da bete Parlamentuak ezarritako epea eta noiz igorriko da legebiltzarrera aipatu azterlana?

Iruñean, 2009ko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, jakiteko ea Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak noiz zuzenduko dituen Aralarko San Miguel santutegiko sarbideko seinaleak.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak noiz zuzenduko dituen Aralarko San Miguel santutegiko sarbideko seinaleak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Herri

Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak ahoz erantzun dezan Legebiltzarraren Osoko Bilkuran.

Iragan apirilaren 6an, parlamentari honek galdera idatzi bat aurkeztu zion Nafarroako Gobernari, jakiteko zergatik Aralarko San Migelerako bidean jarritako kartel berriak gaztelaniaz bakarrik dauden, kontuan hartuta ingurune hori eremu euskaldunaren barruan dagoela.

Handik hilabetera, Corpas jaunak zuzentzen zuen departamentutik iritsi zitzaidan erantzuna. Haren arabera, eskaera Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentura bidaliko zen, hark aipatu seinalea zuzen zezan, ezarritako planaren arabera.

Hori dela-eta, foru parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak noiz zuzenduko ditu Aralarko San Miguel santutegira iristeko seinaleak?

Iruñean, 2009ko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Lizarrako San Migueleko nahiz San Pedro de la Rúako eta Iratxeko monasterioko portale erromanikoen egoerari buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Lizarrako San Migueleko nahiz San Pedro de la Rúako eta Iratxeko monasterioko portale erromanikoen egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, idatziz erantzuteko.

Zioen azalpena

PSN-PSOEek legegintzaldi osoan agertu du ondarearen egoari buruzko kezka, eta kezka hori agerian geratu da Nafarroako Kultur Ondareari buruzko Lehen Hirurteko Plana sinatzerakoan, beste jarduera batzuen artean. Ondarea horren alderdi garrantzitsuenetako bat da gure erkidegoko portale erromanikoena, bereziki sentikorrak

baitira hondamenarekiko eta azken urteetan izandako aldaketekiko .

Lizarran hiriaren inguruan badira oso garrantzitsuak diren hiru portale –San Miguel eta San Pedrokoak eta Iratxeko iparraldeko portalea–, ondarea zaintzeko interesa duten erakunde, elkarre eta partikularren kezka eta azterlanen xede izan direnak. Esate baterako, Estellerriko Ikerketa-Gunea, inguruko zenbait erretore eta prentsaren bidez ondasun hauetako batzuen egoeraren berri izan duten pertsonak.

Hori ikusirik, eta ezagututa multzo horietakoren batekin lotuta abian diren planak, gure taldeak honakoak jakin nahi ditu:

1.- Nafarroako Gobernuarentzat kezagarria al da Lizarrako San Miguel elizako portalearen egoera? Ba al du asmorik portale horren hondatze-maila neurtuko duen azterketarik egiteko? Beste jarduerarik egitea pentsatu al du gai horri dagokionez? Noiz egiteko asmoa du?

2.- Nafarroako Gobernuarentzat kezagarria al da Lizarrako San Pedro de la Rúa elizako portalearen egoera? Zer plan aurreikusten da portalea konpontzeko, multzo osoa zaharberritzeko prozesuaren barruan?

3.- Nafarroako Gobernuarentzat kezagarria al da Iratxeko monasterioko iparraldeko portalearen egoera? Ba al du asmorik portale horren hondatze-maila neurtuko duen azterketarik egiteko? Monasterioa paradore bihurtuko dela-eta, Gobernuak aurreikusten al du portalean jarduera berriazkorik egitea? Noiz egiteko asmoa du?

Iruñean, 2009ko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, 2009ko apirilaren 1etik gaur arte onetsitako enplegu-erregulazio-ko espedienteei buruzkoa.

JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, 2009ko apirilaren 1etik gaur arte onetsitako enplegu-erregulazioko espedienteei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan.

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren estatistiketan agertzen dira enplegu-erregulazioko espedienteek ukitutako enpresa eta langileei buruzko datu orokorrak.

Datu horiek eskualdeen eta sektore ekonomikoaren arabera aztertze aldera, parlamentari honek eskatu zituen 2009ko lehen hiruhilekora arte izandako enplegu-erregulazioko espedienteei buruzko datuak. Azterketarekin jarraitu ahal izateko, 2009ko apirilaren 1etik orain arte onetsitako enplegu-erregulazioko espedienteei buruzko datuak eskuratu nahiko nituzke, ondoko xehetasunak barne:

– Enpresaren izena, bere jardura zein sektore ekonomikoari dagokion eta egoitza zein udalerritan duen.

– Enplegu-erregulazioko espedientean baimendutako kontratu-hutsaltzeen eta -eteteen kopurua eta enpresa bakoitzaren plantilla, guztira.

– Lan kontratua etetea dakarten enplegu-erregulazioko espedienteen aplikazio errealaren ondorioz ukitutako langile kopurua, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuak eskura dituen datuen arabera.

– Enplegu-erregulazioko espediente motak, lan kontratuak hutsaltzekoak eta eteteak diren, eta enplegu-erregulazioko espedienteen onespenez data.

Iruñean, 2009ko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

Galdera, 360/2000 Foru Dekretuaren bidez ezarritako laguntzen deialdiari buruzkoa.

JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, 360/2000 Foru Dekretuaren bidez ezarritako laguntzen deialdiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan.

Ikerkuntza eta garapenari eta berrikuntzari laguntzak emateko araubidea onesten duen

360/2000 Foru Dekretuak ezarritako dirulaguntzak direla eta, parlamentari honek hau jakin nahiko luke:

a) Dirulaguntzak eskuratu dituzten enpresak, zenbatekoak izan diren laguntza horiek eta zertarako erabili diren; hain zuzen, erabili diren oinarrizko ikerketarako, industria arloko ikerketarako eta lehiaz aurreko garapenerako, edota industria arloko ikerketari edo lehiakortasunaren garapenari buruzko aurretiazko bideragarritasun teknikoaren gaineko azterketetarako, edota enpresa txiki eta ertainen aldeko patenteei buruzko jardueretarako.

b) 2007ko urtarrilaren 1etik gaur arte oinarrizko ikerketarako, industria arloko ikerketarako eta lehiaz aurreko garapenerako korriturik gabeko aurrerakin itzulgarriak eskuratu dituzten enpresak eta aurrerakin horiek zenbatekoak izan diren.

c) 2007ko urtarrilaren 1etik gaur arte oinarrizko ikerketarako, industria arloko ikerketarako eta lehiaz aurreko garapenerako dirulaguntzak, Nafarroako Foru Komunitateak abalaturako maileguren interesen baliokideak, eskuratu dituzten enpresak.

Iruñean, 2009ko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

Galdera, lehiakortasuna hobetzeko dirulaguntzei buruzkoa.

JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, lehiakortasuna hobetzeko dirulaguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan.

2007an eta 2008an, lehiakortasuna hobetzeko dirulaguntzak emateko deialdia argitaratu zen Industria eta Merkataritzako kontseilariaren maiatzaren 9ko 1397/2007 Ebazpenaren eta Enpresa Zuzendari Nagusiaren 1E/2008 Ebazpenaren bidez.

1397/2007 Ebazpenaren 12. arauaren eta 1E/2008 Ebazpenaren 13. arauaren arabera, Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 15. artikuluan xedatutakoarekin bat, Berrikuntza eta Teknologia Zerbitzuak Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentuaren webgunean jendaurre-

an jarriko ditu emandako dirulaguntzak, ondokoak zehaztuta: deialdia, laguntza zein programari eta aurrekontu-kredituri egotziko zaion, onuradunak, emandako diru-kopurua eta dirulaguntzaren helburua.

Hala ere, parlamentari honek departamentuaren webgunean aurkitu duen bakarra da onuradunaren datuak, dirulaguntza emateko ebazpenaren zenbakia eta dirulaguntzaren zenbatekoa.

Lehiakortasuna hobetzeko dirulaguntzak zein sektorerara bideratzen ari diren aztertze aldera, parlamentari honek hau jakin nahiko luke:

a) Aipatu bi ebazpenen bidez eginiko dirulaguntza deialdiaren onuradunak, zehaztuta eman zaien zenbatekoa, dirulaguntza hori aurrekontuetako zein programari eta aurrekontu-kredituri egotziko zaion, bai eta dirulaguntzaren helburua ere. Dirulaguntzaren helburuari dagokionez, jakin nahi dut behintzat deialdien 3. arauan jasota dauden atal eta azpiataletatik zeinetan sartzen den dirulaguntza.

b) Zergatik Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuak ez du betetzen ebazpenen 13. araua eta ez du argitaratzen laguntza zein programari eta aurrekontu-kredituri egotziko zaion, emandako diru-kopurua eta dirulaguntzaren helburua?

c) Zein epetan argitaratuko ditu departamentuak Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 15. artikuluan ezarritako datu guztiak?

Iruñean, 2009ko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

Galdera, jakiteko zer kontusailetan sartu diren Nafarroako IV. Enplegu Planean aurreikusitako zenbatekoak.

JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zer kontusailetan sartu diren Nafarroako IV. Enplegu Planean aurreikusitako zenbatekoak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan.

2005-2007 urteetarako Nafarroako III. Enplegu Planaren –2008ra luzatu zen– atal batean zehazten ziren urtero aurrekontuetan plan horretarako bideratuko ziren diru-kopuruak.

Aldiz, 2009-2012 urteetarako Nafarroako IV. Enplegu Planean ez da agertzen plana betearazteko aurrekontuari buruzko aurreikuspenik. Hala ere, Berrikuntza, Enpresa eta Enpleguko kontseilariak, aipatu plana azaltzeko Parlamentuan egin zuen agerraldian, iragarri zuen 2009an 158,1 milioi bideratuko zirela Enplegu Planera; hau da, aurreko planean baino % 8,7 gehiago.

Aztertze aldera aurrekontuetako zer kontusail dauden sartuta Nafarroako IV. Enplegu Planean eta aurrekoarekin alderatuta zer aldaketa izan diren, parlamentari honek hau jakin nahiko luke:

a) 2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorrerako zer kontusail –aurrekontu-kodea, izena eta zenbatekoa– hartu dira kontuan Nafarroako III. Enplegu Planaren luzapenaren barruan?

b) 2009ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorrerako zer kontusail –aurrekontu-kodea, izena eta zenbatekoa– hartu dira kontuan 2009-2012 urteetarako Nafarroako IV. Enplegu Planaren barruan, iragarritako 158,1 milioi euroko kopurura iristeko?

Iruñean, 2009ko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak noiz zuzenduko dituen NA-1700 eta NA-1300 errepedeetako errotuluak.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak noiz zuzenduko dituen NA-1700 eta NA-1300 errepedeetako errotuluak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Gaur egun, NA-1700 eta NA-1300 errepideetan badira bi xafla –biak Lekunberriko norabidean–, Leitzako toponimia eta Euskarari buruzko Lelgea

betetzen ez dituztenak. Honekin batera doazen argazkietan ikus daitezke aipatu xaflak.

Hori dela-eta, foru parlamentari honek hau jakin nahi du:

1. Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik errotulazio horiek zuzentzeko?

2. Noiz?

Iruñean, 2009ko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Nafarroako Mendekotasun Agentziak egoitza publikoei eta itunpekoiei aplikatzen dizkien tarifei buruzkoa.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Mendekotasun Agentziak egoitza publikoei eta itunpekoiei aplikatzen dizkien tarifei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko gal-

derak aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzuteko:

Zioen azalpena

Duela gutxi jakin dugu nabarmen igo direla zaharren egoitza publiko eta itunduetako tarifak.

Tarifa horiek atzeraeraginkortasunez aplikatuko dira, iragan ekainetik hasita, eta egoitza horien erabiltzaile askorentzat ez daude justifikatuta. Igoerak ezartzeko argudioa oinarritzen dira departamentuak ezagutzera eman ez dituen kalkuluetan, eta departamentuak dioenez, igoerak oso pertsona gutxiri eraginen die.

Emandako datuak kontraesankorrak izateagatik sor daitezkeen zalantzak direla eta, parlamentari honek hau jakin nahiko luke:

Zer igoera aplikatuko zaie, errenta-tarteen arabera, Nafarroako Mendekotasunaren Agentziak egoitza publiko nahiz itunduetarako ezarritako tarifak?

Iruñean, 2009ko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Klima aldaketari aurre egiteko jarduerak aztertu eta horiei buruzko proposamenak egiteko lan-taldearen txostena.

LANDA GARAPENEN ETA INGURUMENEN BATZORDEAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikulua xedatutakoa betez, klima aldaketari aurre egiteko jarduerak aztertu eta horiei buruzko proposamenak egiteko lan-taldearen txostena argitara dadin agindu dut. Txosten hau Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordeak onetsi zuen 2009ko irailaren 24an.

Iruñean, 2009ko irailaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

TXOSTENA

Klima aldaketari buruzko azterlana eta proposamena jasoko dituen txosten bat prestatzeko ardura zuen Nafarroako Parlamentuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordeko lan-taldeak, Erregelamenduko 55.2 artikuluan xedatuaren barrenean, ondoko txostena aurkezten dio legebiltzarreko Mahaiari.

1. 2008ko otsailaren 12an, Nafarroako Parlamentuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordeak, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak proposatuta, erabaki zuen lan-talde bat osatzea klima aldaketari buruzko azterlana eta proposamena jasoko zituen txosten bat prestatzeko.

2. Lan-taldea 2008ko martxoaren 7an eratu zen, eta honako kide hauek zituen, Legebiltzarreko parlamentu-taldeek horretarako izendatuak izan ondoren: Faustino León Chivite jauna (UPN), Aitor Etxarri Pellejero jauna (NABAI), María Gracia Iribarren Ribas andrea (SPN), José Andrés Burguete Torres jauna (CDN) eta Ion Erro Armendáriz jauna (IUN-NEB). Legebiltzarreko legelari Manuel Pulido Quecedo jauna izendatu zen laguntzaile. Eratzeko saioan, Ion Erro Armendáriz jauna (IUN-NEB) hautatu zuten lan-taldeko lehendakari.

3. Lan-taldean honako adituak eta gizarte-eragileak agertu izan dira, beren irizpideak emateko:

José Santamarta jauna (World Watch-en Espainiako zuzendari nagusia)

Joaquín Nieto jauna (CCOO sindikatuko ingurumenaren arloko idazkari konfederala)

Francisco Heras jauna (Ingurumen Hezkuntzarako Zentro Nazionala)

Fernando Valladares jauna (CESIC)

Pablo Cotarelo jauna (Ekologistak Martxan)

Mar Asunción andrea (Adena)

Raquel Montón andrea (Greenpeace)

Josep Lluís Espluga jauna (governantza-aren arloko aditua)

Miguel Ángel Gil jauna (UGT)

Carmen Sesma andrea (CCOO)

Alfredo Rueda jauna (Ekologistak Martxan)

Natxo Larráinzar Ridruejo jauna (EHNE)

Andrés Eciolaza Carballo jauna (Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusia)

José M.^a Roig Aldasoro jauna (Berrikuntza, Enpresa eta Enpleguko kontseilaria)

Javier Asín Semberoiz (CRANako zuzendari nagusia)

4. Zenbait bilera egin ondoren, ponentziak honako txosten hau aho batez onetsi du, ekainaren 15ean eginiko bileran. Hona edukia:

I
AURREKARIAK

Klima aldaketak duen garrantziaz kontzientzia hartzeak berarekin ekarri du politikak, aspaldi honetan, bere ardurari eustea eta ustez duen lidergoaz baliatzen hastea. Kofi Annanek hauxe esan zuen: *klima aldaketaren lidergo politikoa*

falta zen klima aldaketaren agendari konponbidea emateko.

Nafarroako Parlamentuak zentzu horretan hartzen ari diren ekimenekin bat egiten du.

- Kyotoko Protokoloaren arabera, zeina 1997an sinatu baitzen, herrialdeek konpromisoa hartu zuten berotegi-efektuko gasak murrizteko neurriak hartzeko.

- 2007ko abenduan, Indonesian, Baliko Ekintza Plana idatzi zen. Hartan lau giltzarri identifikatu ziren: arintzea, egokitzea, finantzak eta teknologia.

- Europako Parlamentuak eta Europako Kontseiluak 2001ean Ingurumenaren arloko Europako kudeaketen eta auditorien sistema ezartzeko Erregelamendua onetsi zuten.

- Europako Kontseiluak eskatzen du energia-eskariaren efizientzia eta kudeaketa hobetzeko lan egitea, hain zuzen ere berotegi-efektuko gasen emisioen aurka borrokatzeko.

- Espainiako Gobernuak "Garapen Iraungarriaren Espainiako Estrategia" prestatu du eta 2007ko uztailaren 20an "Klima Aldaketaren eta Energia Garbiaren Espainiako Estrategiako presako neurriak" planteatu zituen. "Klima Aldaketari egokitzeko Plan Nazional" bat badago.

- Klimaren Kontseilu Nazionalak, 2007ko urrian, Klima Aldaketaren aurkako Espainiako Estrategia onetsi zuen. Hartan, 198 neurri zehatz ageri dira, Espainiak Kyotoko konpromisoak betetzera bideratuak.

- Nafarroako Gobernuak plan batzuk ditu abian, esate baterako Energia Plana, 2010era artekoa, non energia aurrezteko eta efizientzia energetikoa hobetzeko neurriak sustatzen diren.

Ekonomiaren eta lanaren esparruan, klima aldaketaren dimentsio ekonomiko eta soziala aintzat hartuko dituzten politikak orientatu beharko dira. Zer gerta daiteke Nafarroan, hemendik 40 urtera, berotzearen joerari buelta ematen ez bazaio?

Klimaren aldaketak ingurumen-arazoaren muga gainditua du, eta herrialdeetako agenda ekonomiko eta sozialetan instalatu da jada. Iraungarritasunaren hiru zutabeak (ingurumenekoa, ekonomikoa eta soziala) jarri dira abian arazoi konponbidea emateko, eta honelakoak dira dituzten planteamenduak: ekologikoki aldagarriak, sozialki iraungarriak eta ekonomikoki bideragarriak.

Horretarako, Nafarroako Parlamentuko talde guztiek uste dute ezinbestekoa dela Nafarroan klima aldaketari aurrea hartzeko eta hura arintzeko

plan bat egitea. Plan hori, izan ere, Nafarroako Gobernuak egin beharko du, parametro batzuk kontuan izanda. Nolanahi ere, alderdi batzuei buruz gogoeta egin beharko du, eta gutxienez ere honako helburuak hartu beharko ditu kontuan.

II HELBURUAK

1.- GARAPEN IRAUNGARRIAREN EREDU BERRIA.

Gaur egun, ingurumena berraurkitzen ari gara. Hari buruzko kontzeptio tradizionalan, ingurumena etsai gisa hartzen zen, eta menperatu eta ustiatu beharrekoa zen; ingurumena ulertzeko modu horrek, historiaren hasieratik, gauzak ulertzeko eta lan egiteko moduak baldintzatu izan ditu.

Gaur egun, ingurumena narriatuta dagoen egoera batean bizi gara, eta horrek berarekin ekarri du gizakiaren eta haren ingurunearen arteko erlazioak beste ikuspuntu batetik birplanteatu behar izatea.

Egoera berri horretan, ezinbestekoa da botere publikoek, gizarte-erakundeek eta ekimen pribatuak bultzatzea ingurumena ardatz izanen duten ereduak. Eredu horiek oinarrituko dira biozentrismoan (gizakia ingurumenaren beste elementu bat balitz bezala hartzea, inguruan dituen elementu bizi eta fisikoekin elkarreraginean bizi dena) eta ingurumenaren etika bat garatzean (pentsamendurako eta ekintzarako ildo baten gisara, sistemaren oreka kaltetzen duen guztiaren aurka, hain zuzen ere gizakiak naturarekin duen erantzukizunean oinarritua).

Halaber, GARAPENERAKO EREDU IRAUNGARRI berri baten aldeko apustua egiten dugu, mugarik gabeko hazkundearen eredu espantsionistaren aurka, hain zuzen ere aro industrialak eta garapen teknologikoak iragartzen zuena. Baliabide naturalen agortezintasunari buruz eta sistema ororen dinamika atzeraezinari buruz daukagun ezagupena dela eta, jokatzeko eta hazteko jarraibideak birplanteatu beharrean gaude. Hain zuzen ere, jarraibide horiek ez dira oinarrituko parametro ekonomiko hutsetan, baizik eta biziera guztien errespetuarekin eta bizi kalitate hobearen garapenarekin hobeki ezkontzen diren parametroetan.

Guk helburu dugun garapen iraungarriaren eredu, egungo beharrezane konponbidea ematen zaie etorkizuneko belaunaldiak beren beharrezanase ahal izatea arriskuan jarri gabe (kontzeptu hori lehenbiziko aldiz erabili zen Ingurumenari eta Garapenari buruzko Mundu Batzordearen txostean). Horrenbestez, garapen ekonomikoaren eta bizi kalitatearen konbinazio bat da, ingurumenak

etorkizuneko populazioari eusteko duen gaitasuna konpromisoan jarriko ez duena eta egungo eta etorkizuneko belaunaldiei ongizate ekonomikoa emanen diena, betiere ingurumenaren egoera onari eusteko baldintzarekin.

Garapen iraungarriaren konponbideak, ikuspuntu ekologikotik, ezartzen den tokiko ingurumenaren araberakoa izan behar du, eta sozialki iraungarria eta ekonomikoki bideragarria izan behar du. Eredu berri hori Nafarroan ezartzeak berarekin dakar baliabide naturalak modu efizientean erabiltzea, hondakinak eta kutsadura nabarmen gutxitzea, ingurumenaren mugak definitzea, eta sensibilizazio, ikerketa eta prestakuntza lanak egitea garapen iraungarriaren eredu berri horrek ezartzen dizkigun aldaketa sozial eta kulturaleri dagokienez.

2.- KLIMA ALDAKETAREN AURKAKO FORU PLANA.

Kyotoko Protokoloak eta Europar Batasunak berak ezarri bezala, berotegi-efektuko gasen emisioak gutxitzeko nabarmen aldatu beharko litzateke energia kontsumitzeko eta ekoizteko modua.

Nafarroa energia berriztagarrien ekoizpenaren buru-buruan dago. Nafarroak energia berriztagarrien bitartez sortzen du kontsumitzen duen energia elektrikoaren % 70, eta hori aprobetxatu beharrekoa da 20/20/20 helburuan aitzindaria izateko. (Europak, 2020. urterako emisioak % 20an gutxitzeaz gainera, erabaki zuen energia berriztagarriek, data horretan, amaierako energiaren % 20 egitea Europa osoan, eta energiaren kontsumoa ere % 20 gutxitzea, edo haren efizientzia ehuneko berean hobetzea). Eta energia berriztagarria ekoizten den moduan ekoizteak aurrezkoa eta efizientzia areagotu behar ditu. Ezin da politika energetiko arduratsurik egon, soilik energiaren sorrerari begiratzen bazaio, eta ez kontsumoari.

Klima Aldaketarako Ekintza Planerako egindako *Klima aldaketaren diagnosis Nafarroan* lanean jaso zen inbentarioa ontzat emanda, oinarri-urtekoak (1990) baino % 37,61 handiagoak diren emisioak aurkituko ditugu, eta horietatik dira abiapuntua.

Horrenbestez, bidezkoa da Nafarroako Gobernuak klima aldaketaren aurkako foru plan bat onestea, eta hartan, honako helburuak ezartzea:

- % 15ean ezartzea 2012rako emisioen igoeraren muga.
- 2020rako Europar Batasunak erabakitako helburu bera ezartzea, eta 1990eko emisioekin alderatuta horiek % 20 gutxitzea.

- Energiaren aurrezkoa eta erabilera efizientea sustatzea sektore guztietan.

- Arestian aipatutako helburuak erdiesteko. berotegi-efektuko eta klimaren aldaketak gizartean dituen ondorioen ebaluazioan aurrera egiteko gasen emisioak gutxitzearen arloan hartu beharreko neurriak identifikatzea. Neurriak halako denboraz hartuko dira, non behar diren egokitzapenak egiten diren, aldaketaren eragin negatiboak ahal den guztian gutxitzeko.

3.- KLIMA ALDAKETAREN AURKAKO NAFARROAKO ESTRATEGIA.

Horretarako, KLIMA ALDAKETAREN AURKAKO NAFARROAKO ESTRATEGIA bat diseinatu behar da legegintzaldi honetan:

Estrategia hori zeharkako moduan egituratu beharko da, eta planifikatu beharko da, helburu, neurri eta helmuga zehatz batzuekin, eta balioetsitako oroitidazki bat ere ekarri beharko du.

Gure lurraldearen esparruari (Nafarroa) buruzkoa izanen da, baina Klima Aldaketaren aurkako Estrategia Nazionalaren barruan, Europako erakundeetatik heldu diren zuzentarauen eta Kyotoko Protokoloaren (+ Kyotoren ondorengoak) barruan koordinatuko da. Zuzenduta egonen da, halaber, sektore lauso guztietara, Emisio Eskubideen Merkaturari buruzko Zuzentarauak ukitutako instalazioen emisioak gutxitzeko politikaren babesarekin. Eta administrazio publiko guztiak, sektore publikoa (enpresa publikoak eta partaidetza publikoa dutenak), sektore pribatua eta gizarte osoa hartuko dute.

Klima aldaketaren aurka zuzenduko da, eta helburu nagusi izanen du giza jarduerak, gure esparruan, klimaren gainean duen eragin negatiboa gutxitzea.

Eta parte-hartze sozialeko prozesu handi baten bidez landuko da: informazio saioak egonen dira arazoa eta proposaturiko prozesua aurkezteko. Eztabaida saioak eta gogoeta sektorialak, sektore-arteak, lurraldekoak eta osoko bilkura erakoak egiten dira, non diagnosiari buruz eta hartu beharreko neurrii buruz lan egiten baita, kasuko jarduerak lehenetsiz.

4.- PLANAREN ERANTZUKIZUN PUBLIKOA

Lan-taldeak nabarmentzen du planaren gaineko erantzukizun publikoa exijitu beharra. Horri dagokionez, honakok helburuak jaso beharko ditu:

- Konpromisoetara iristeko eta administrazioak eta gobernuak prozesuaren lidergoa izateko borondatea.

- Nafarroako Gobernuak konpromiso ekonomiko eta soziala bere gain hartzea.

- Klima Aldaketari buruzko Departamentuen arteko Batzordea sortzea. Batzorde hori Nafarroako Gobernuko lehendakariaren pean egonen da zuzenean; halaber, Nafarroako Klima Aldaketaren aurkako Bulegoa sortuko da.

1. Klima Aldaketari buruzko Departamentuen arteko Batzordea.

Honakoak dira Klima Aldaketari buruzko Departamentuen arteko Batzordearen xedeak:

- Nafarroako Gobernuak klima aldaketaren aurkako borrokan egiten duen lana zeharkakotasunez koordinatu eta sustatzea.

- Nafarroako Gobernuko departamentu guztien artean zeharkako jarduerak sustatzea, klima aldaketari egokitzea errazteko, hain zuzen ere haren eraginak gutxitze aldera.

- Jardueren jarraipena eta ebaluazioa egitea.

- Nafarroako Gobernuko departamentu guztiak integratzea:

2. Nafarroako Klima Aldaketaren aurkako Bulegoa.

Honako helburuak izanen ditu:

- Klima Aldaketari buruzko Departamentu arteko Batzordean klima aldaketari buruzko estrategia bat sustatu eta proposatzea.

- Berotegi-efektuko gasen emisioak gutxitzeko politika publiko guztiak dinamizatu, koordinatu eta ikuskatzea.

- Berotegi-efektuko gasak gutxitzeko etxeko politikak sustatu eta bultzatzea Emisio Eskubideen Merkatuari buruzko Zuzentarauan sartzen ez diren sektoreetan.

- Emisio-eskubideen Merkatuari buruzko Zuzentarauak hartzen dituen instalazioetan emisioak gutxitzeko politikak sustatzea, eta, komeni bada, Kyotoko Protokoloaren malgutasun mekanismoak erabiltzea.

- CO₂ko isurbideak hobetzea

- Klima-aldaketari egokitzeo politikak sustatzea.

- Gizarte zibilarekin, arlo akademikoarekin eta enpresa-sektoreekin klima-aldaketarekin loturiko alderdi guztiei buruzko zabalkundea, kontzientziazio, heziketa eta adoste lanak egitea.

III

HARTU BEHARREKO NEURRIAK

a) Legegintza-neurriak.

Klima-aldaketaren eraginak arintzeko politikak abian jartzeko, zeharkakok ahaleginak egin behar dira, alde batetik *ad hoc* legeak egin ahal izateko. Lege horien helburua izanen da, batetik, klima-aldaketaren aurka borrokatzea, eta, bestetik, legeak egokitzea planean ezarritako helburuak bete ahal izateko.

Besteak beste, honako legegintza-alderdiak landu behar dira:

1. Nafarroako Foru Komunitateko Garraio Iraungarriari buruzko Foru Legea. Garraio iraungarriari buruzko plan bat egin beharko da horretarako. Lege horrek garraioa izanen du xede, garraio modu desberdinei dagokienez: ibilgailuak, trenbidea, bizikleta... eta ederki koordinatu beharko da aztertzeo fasean dagoen azpiegituren planarekin, bai eta Bizikletaren Plan Zuzendariarekin ere.

2. Energiaren Aurrezpenari eta Erabilera Efizienteari buruzko Foru Legea, zeina Energia Plana berrikusiz egin beharko baita, lan-talde honetan ezarritako helburuak betetzeko. Lege horrek, besteak beste, energiaren aurrezkoa eta erabilera efizientea arautu eta indartu beharko ditu sektore ekonomikoetan eta etxeko sektoreetan, eta energia berriztagarrien aldeko apustu argia egin beharko du.

3. Hondakinen Plana lege indardunei egokitzea, eta hartan klima-aldaketaren eraginak arintzeko helburu egokiak ezarri.

4. Mugigarritasun iraungarriari buruzko foru lege bat egitea, foru erkidego osoan aplikatzekoa. Hartan, mugigarritasun planak egiteko betebeharrak ezarriko da 10.000 biztanle baino gehiagoko populazioetan eta berritik sortzen diren eta 200.000 m² garbi baino gehiagoko azalera duten eremu ekonomikoetan.

5. Nafarroako nekazaritzaren eta abeltzaintzaren arloko planak plan honetan ezarritako helburu-etera egokitu behar dira.

6. Etxebizitzari buruzko araudia politika iraungarriari eta eraikuntza-kode berriak betetzeko betebeharrari egokitzea. Halaber, antzeko kode bat ezartzea lehendik dauden eta zaharberritzeoak diren eraikinetarako.

b) Neurri administratiboak.

Foru erkidegoko administrazioak klima-aldaketa arintzera zuzendutako neurri guztiak koordinatu eta indartu beharko ditu. Horretarako:

Ingurumen praktika zuzenei buruzko programa bat sustatu beharko da Nafarroako administrazioen eraikinetan.

Jarraibide gehiago emanen dira kontratazio-orrietan ingurumenari buruzko alderdiak sartzeko.

Toki Administrazioari laguntza teknikoa ematen zaio Agenda 21 deitutakoen bitartez edo bestelako tresna batzuen bitartez udaletan energia aurrezteko eta emisioak gutxitzeko programak ezar daitezten.

c) Berrikuntza, ikerketa eta garapena.

Klima-aldaketaren arloan lan eginen duen erakunde edo ikerketa-zentro bat sortzea, energia berriztagarrietan espezializatua. Teknologiarako, ikerketarako eta prestakuntzarako erreferentziako zentroa izanen da.

Erantzukizun publikoaren arlotik eratu beharko da, Nafarroako unibertsitateekin, CENERekin, zentro teknologikoekin eta gure erkidegoko enpresa eta agente ekonomiko eta sozialekin koordinatuta.

d) Politika fiskala.

Gogoeta egin beharra dago politika fiskala erabiltzeko beharri buruz, hain zuzen ere ingurumenaren arloan finkaturiko helburuak lortu ahal izateko. Ez da nahikoa zigor fiskalak ezartzea ingurumenaren arloko betebeharrak betetzen ez dituenari; izan ere, politika fiskala bera berrikusi beharko da, mesede egiteko adierazitako helburuak betetzeko neurriak sustatzen dituztenei, horrela enpresen lehiakortasuna eta herritarren ongizatea bateragarri egiteko.

e) Baso-politika, isurbideak eta nekazaritza.

- Berotegi-efektuko gasei aurrea hartzeko eta haiek gutxitzeko neurrien bidez. Horretarako, informazio geografikoko sistemak garatu eta mantendu beharko dira, emisio arazoak detektatzeko eta haiek denboran duten bilakaera jarraitu ahal izateko, bai eta aplikatzen diren neurri zuzentzaileen politikaren eraginkortasuna ebaluatzeko ere.

- I+G+B arloan egiten den ahaleginari eustea eta hura hobetzea, halako moduan non inbertsioak optimizatu ahalko diren agertokiak eta prozesuak hobeki ezagutzearen bidetik.

- Sektore produktiboekin jarduera koordinatuak ezartzea, haien bidez nekazaritzaren sektorean arazoak sortu gabe, eta sektore horrek beste arlo batzuetatik heldu diren azpiproduktuak xurgatzeko duen gaitasuna erabiltzea.

- Sentsibilizazio kanpainen bitartez, produktu ekologikoen kontsumoa sustatzea, produkzio eko-

logikoaren abantailak islatuz. Jarduera modu horretan erabiltzen den lur-azalera handitu dadin sustatzea, eta balioestea produktuaren efizientzia, erabilitako energiaren gutxitzea eta ongarrrien kontsumoaren.

- Baso-politika eta isurbideak: Nafarroaren berezitasuna eta bertako zuhaitz-azalaren handia kontuan izanda, nekazaritzaren eta basogintzaren arloko biomasa erregai gisa erabiltzeko aukera nabarmendu behar da.

- Nafarroako Basoei buruzko Plana aplikatzea, eta egungo isurbideak mantentzeko eta esparru desberdinetan (basogintza, nekazaritza eta larreak) karbonoaren xurgatzea areagotzeko helburua ezartzea, harik eta oinarri-urteko % 6ra iritsi arte.

f) Kontratazio publiko iraugarria.

Ingurumen irizpideak integratzea kontratu publikoaren fase guztietan: kontratuaren xedea (ingurumenari buruzko aipamen orokorrak, eraikinen energia-efizientziari buruzkoak, produktuaren iraungarritasuna, eraikuntza iraugarria...), zehaztapen teknikorik zehatzak (materialak, eraldatze prozesuak, ziurtagiri eta etiketa ekologikoak, ekipo modularrak eta bereizgarriak erostea) hautagaiak hautatzea (ingurumenaren arloan kaudimen teknika izatea, ingurumena kudeatzeko sistemak) kontratuaren adjudikazioa (adjudikazio irizpideak ingurumeneko zehaztapen teknikoekin lotzea, lizitatzailen ingurumenaren arloko kalitate plana), kontratuaren exekuzioa (ingurumeneko erantzulea, zaintza plana eta ingurumen praktika zuzenak).

g) Sentsibilizazioa, kontzientziazioa eta hezkuntza ingurumena dela eta.

Gizarte indibidualizatuak garapen iraugarriago baterantz joateko beharrezkoa da pertsonen eta ingurumenaren arteko bizikidetasun eredu berri bat izatea. Eredu horren arabera, azterketa eta eztabaida prozesu zabal bat eginen da botere publikoen, gizarte eragileen eta eragile ekonomikoaren eta, oro har, herritarren artean.

Berrikuntza teknologikoei esker, gure jarduerak ingurumenean eragin txikiagoa izanen badute ere, populazioaren hazkundeak eta, halaber, kontsumitzeko aukerak gora egiteak askotan teknologiaren eragin hori berdintzea ekar dezakete eta, horrenbestez, ingurumenean –eta, horrenbestez, gure bizi-kalitatean– eragina izanen dute. Horrenbestez, informazioa eta ezagutzaren sustapena, sentsibilizazioa eta ituna oinarritzko ardatzak dira klima aldaketaren aurkako borrokan lagungarria izanen den eredu bat lortzeko.

- Klima aldaketari buruzko sentsibilizazioa eta ezagutzaren zabaltzea: zergatik eta nola sortzen

den, haren ondorioak eta hura arintzeko hartu beharreko neurriak.

- Klima aldaketa irakaskuntzan: eskolak eta unibertsitateak.

h) Komunikazioa eta zabalkundea.

Zabalkunde-lana eta gidak sustatzen jarraitu behar da Nafarroako gizarteko sektore desberdinetan; esate baterako energia aurrezteko praktikei buruzko gidak eta ingurumen praktika zuzenei buruzko beste gida batzuk, gaur-gaurkoz Nafarroako Ingurumen arloko Baliabideen Zentroak egiten dituenak.

Horri dagokionez, Nafarroako Ingurumen arloko Baliabideen Zentroaren egitekoa funtsezkoa izaten ari da gizartea eta administrazioak kontzientziazteko.

i) Ekimen pribatuak eta borondatezko akordioak bultzatzea

Gizartearen eta Administrazioaren arteko lankidetzaren funtsezko elementu bat da berotegi-efektuko

emisioak gutxitzeko. Izan ere, Europar Batasuneko herrialde batzuek enpresaren eta Administrazioaren arteko borondatezko akordioei buruzko esperientziak dauzkate, iraungarritasunerantz aurrera egitea bideratzen ari direnak.

Enpresek eta erakundeek, beren borondatez, aukera izanen dute emisioak gutxitzen lagunduko duten neurrietara biltzeko, araudietan ezarritakoez harantzago; horren trukean, Nafarroako Foru Komunitateak ahalegin horiek piztuko ditu, haiek aitortzeko tresnak ezarriz. Emisio Eskubideen Merkatuari buruzko Zuzentarauaren pean ez dauden sektoreek eginiko ahalegin horretan, Nafarroako Gobernuako departamentuek zuzenean koordinatutako ekintzak eginen dira.

Borondatezko akordioak, ordea, gehiago orientatuko dira enpresek berek nahiz partikularrek klima aldaketaren aurkako borrokaren alde aurrera eramaten dituzten ekintza positibo guztiak sustatzera eta erakustera.